


# ◆ Elurra ◆



## Eguraldi iragarpena Pirinioetan

Jon Albisu

**Euskal Herriko Pirinioak**  
Negu-neguan izanik, ezin hutsik egin Pirinioetatik elurretara joateko gonbitari, baina oraingoan gure lurraldeko mendietan ez da ez eskiatzeko elur nahikorik. Izan ere, Irati eta Aralarako iraupenezko eski pista txita daude elur faltagatik. Erronkariko bailararaino joan beharko dugu, Larra eta Belaguara hain zuzen ere. Astebururako haizea izango dugu protagonista, mendebal hego-mendebaldekoa, baina bi fronte iritsiko dira, bihar hotza eta igandean beroa. Giro nahasia izango da, haizetsua, eta tarteka elurra botako du; ostarteak ikusteko aukera ere izango da. Igande eguerdirako hobetuko du.

**Espainiako Pirinioak**  
Hor ere, haizeak eta elurrak ez dute ez atsedenik hartuko. Hortaz, nahiko giro nahasia eta aldakorra suertatuko da. Badaramatzagu aste batzuk eguraldi honekin, eta oraindik beinik behin ildo beretik segituko du. Haizeak indartsu joko du, eta tarteka elurra botako du, batik bat bihar goizean fronte hotzarekin, baina ostarteak ikusteko aukera ere izango da; igandean eskiatzeko giro bikaina izango da, batez ere eguerditik aintzina, hego-mendebaldeko haizea indartsu iritsi arren. Kasu horietan hobe gorenko pistetan ahal den arreta handiarekin ibiltzea.

**Frantziako Pirinioak**  
Okzitaniako Pirinioetan, azken aldietan botatakoak oraindik ederki irauten du. Elurra gogotik da, eta hortaz ez da inolako arazorik hain gustuko duenak kirola egiteko. Larunbatean izango dugu egunik beltzera: fronte hotza eta mendebaldeko haizeak gogor erasoko baititu bertako mendi eta bailarak. Hortaz, beheko pistei eutsi behar. Igandean, hego-mendebalarekin, hobekuntza nabarmena izango da, baina haizea berriz ere oso indartsu ibiliko da. Ia eski pista guztiak zabalik dira. Larunbaterako Pirinio guztian kateak eramatea komeni litzateke, goietan larunbatean elur dezente bota baitezake.

**Kataluniako Pirinioak**  
Kataluniako Pirinioetan ere igandea izango dugu egunik aproposena. Hala ere, argi utzi behar da hego-mendebaldeko haize indartsua dela eta Penintsulako pistetan eskiatzea zailagoa suertatuko dela. Larunbatean, ordea, ez da aldaketa nabarmenik izango, haizeak nagusiki mendebaldeko norabidea izango baitu. Hortaz, bihar, elurra egiteko probabilitatea benetan handia izango da, eta ondorioz, haizearen ufadak zailtasunak gehituko dizkio. Igandean, goizgoizetik giro askoz hobea izango da, baina haizea dela medio, goiko pistetan kontu handiz ibiltzea gomendatzen da.

Informazioa	Sarrerak	Altuera		Pistak	Erremonteak	Km	Elurra	Lodiera	
		Minimoa	Maximoa						
974 373192	1 <b>Candanchu</b>	Irekita	1.500 m.	2.250 m.	55/27	25/21	21	Gogorra	45-50
974 373034	2 <b>Astun</b>	Irekita	1.700 m.	2.350 m.	46/20	16/13	26	Gogorra	90-30
974 490049	3 <b>Formigal</b>	Irekita	1.500 m.	2.250 m.	52/25	23/18	26	Gogorra	30-90
974 487248	4 <b>Panticosa</b>	Irekita	1.140 m.	2.200 m.	38/10	14/7	6	Hautsa-gogorra	20-70
974 551111	5 <b>Cerler</b>	Irekita	1.500 m.	2.600 m.	38/16	16/13	19	Gogorra	20-45
973 414660	6 <b>Boi Taull</b>	Irekita	2.050 m.	2.640 m.	41/28	15/15	28	Hautsa-gogorra	40-45
973 645062	7 <b>Baqueira Beret</b>	Irekita	1.500 m.	2.600 m.	47/47	23/23	77	Hautsa-gogorra	95-175
00-376 865910	8 <b>Pas de la Casa</b>	Irekita	2.000 m.	2.400 m.	55/52	33/33	100	Gogorra	40-70
07-335 96 62 14 8	9 <b>Arette-La Pierre St. Martin</b>	Irekita	1.600 m.	2.200 m.	16/16	16/16	22	Hautsa-gogorra	30-70
07-335 59 05 12 17	10 <b>Gourette</b>	Irekita	1.400 m.	2.500 m.	-	- /18	21	Gogorra	50-150
07-335 59 05 34 00	11 <b>Artouste</b>	Irekita	1.700 m.	2.300 m.	21/18	10/9	18	Hautsa-gogorra	40-100
07-335 62 42 50 27	12 <b>Cauterets</b>	Irekita	1.550 m.	2.200 m.	-	- /11	32	Hautsa-gogorra	105-150
07-335 62 93 81 60	13 <b>Luz Ardiden</b>	Irekita	1.600 m.	2.100 m.	-	-	60	Gogorra	60-100
07-335 62 39 44 45	14 <b>Saint Lary</b>	Irekita	-	-	47/45	32/30	78	Gogorra	40-90
941 746005	Valdezcaray	Irekita	1.500 m.	2.200 m.	14/13	11/10	13	Gogorra	30-60
948 391000	15 <b>Aralar</b>	Elurrik ez	1.100 m.	1.350 m.	-	-	-	-	-
00-335 59285129	16 <b>Irati</b>	Elurrik ez	1.350 m.	1.500 m.	-	-	-	-	-
948 394022	17 <b>Abodi</b>	Informaziorik ez	1.300 m.	1.500 m.	-	-	-	-	-
948 394002	18 <b>Larra-Belagua</b>	Irekita	1.400 m.	1.750 m.	-	-	25	Gogorra	30-40
00-335 59 36 00 21	19 <b>Somport</b>	Irekita	1.400 m.	1.600 m.	-	-	25	Gogorra	40-55
00-335 62926127	20 <b>Pont d'Espagne</b>	Irekita	1.500 m.	1.750 m.	-	-	30	Gogorra	40-60